


ELKARRI LAGUNTZEN**3. Gelako BAT buzoia**

Harremanak **elkarren artean eraikitzen** dira. Batzuetan, komunikabideetan ez dira arazoan aurrean harreman onen ereduak eskaintzen, ezta horiek izateko jokabide egokienak ere. Baina egon badaude, bai gizartean eta gure inguru hurbilean, bai gure geletan. Ereduak beharrezkoak dira jokabideak bideratzeko.

Jarduera hau egin baino lehen, komeni da  ariketa egitea, gelan giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUAK

- Elkarbizitzaren aldeko jokabideak jasotzea.
- Gelako giro onaren aldeko jarrera balioestea.

GARAPENA

Irakasleak BAT buzoia nola erabili azalduko du.

Gelan, kutxa batekin egindako BAT buzoia egongo da eta “Jokabide eredugarriak” eranskinak ondoan egongo dira. Ikasleek astean zehar arazo baten aurrean jokabide zuzena ikusten duten bakoitzean, “Jokabide eredugarriak” eranskina bete, eta buzoian sartuko dute. Ikasle guztiek izango dute beren “Buzoia” eranskina, **BAT karpeta pertsonalean**, eta ekarpenak egiten dituzten bakoitzean, bertan apuntatuko dituzte.

Goizero 1. saioa ematen duen irakasleak kutxan dauden orriak hartuko ditu, irakurri, eta ondo eginak daudenak ikasleen aurrean irakurriko ditu, saioa bukatutakoan. Denak jaso eta tutoreari emango dizkio.



Irakasleak ikasleei gogoraraziko dizkie egindako GURE ARTEKO HARREMANAK blokeko jardueren helburuak: emozioak eta nahiak modu egokian adieraztea eta gelako giro onarekin BAT egitea.

Arbelean, denon artean, esaldi hau osatuko dute:

Gela honetako ikasleakgara

Denok gustura egoteko..... egin dezakegu eta
.....egingo dugu.

Irakasleak argazkia aterako dio eta korridoreko **BAT panelean** itsatsiko du, beste geletan ateratakoekin batera.

DENBORA

30 minutu

BALIABIDEAK

- Eranskina: "Jokabide eredugarriak"
- BAT karpeta pertsonala
- Eranskina: "Buzoia"